

2023/00000233 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, 2023/02/08

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 22an, zuzeneko dirulaguntza hitzarmena erabaki zuen Chillida Leku museoarekin, Eduardo Chillidaren lana ezagutarazi, hernaniarrak museora hurbildu eta bi erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzeko helburuarekin.

Hitzarmenaren arabera, Hernaniko Udalak 15.000 euro ordainduko dizkio Chillida Leku museoari bi epetan: dirulaguntzaren lehen zatia, 9.000 euro (%60) hitzarmena sinatzean, eta bigarrena, aldiz, 6.000 euro (% 40) zuriketa egindakoa.

- Chillida Leku Museoak garaiz eta dagokion epean aurkeztu du 2022ko memoria, 2023ko urtarrilaren 31 baino lehen, hain zuzen.
- Memoria horretan xehetasun handiz adierazi ditu urtean zehar egindako jarduerak. Horren barne kokatzen dira artista hernaniarrekin egindakoak eta Hernaniko Udalak bertan antolatutako emanaldiak.
- Chillida Leku Udako Solstiziorako sarrerak helarazi dizkio Udalari, eta udako zenbait jardueratan hernaniarrei prezio berezian eskaini dizkie sarrerak.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

1.- **2022. urteari dagokion bigarren zatiaren ordainketa egitea, alegia, 6.000,00 euro, 1.02.481.02.334.00. 2022 (6733) Chillida Leku Hitzarmena partidatik.**

2.- Hitzarmena lau urtez luzagarria denez, **2023. urteari dagokion lehen zatiaren ordainketa egitea, alegia, 9.000,00 euro, 1.02.481.02.334.00. 2023 (6733) Chillida Leku Hitzarmena partidatik.**

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkatea agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea.
Sinatua: udal idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8840d3fe-8bf8-4b14-8e9d-b3a0fe56ae89**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**